

## AZPEITIA

Urtekaria 2002  
Urola-Kosta

## LABURREAN

## MUSIKA

I. Triku Festa antolatu zuten Zubi Zaharreko  
eta Urrestikao lokaleko kideek

Iraileko hirugarren asteburuan izan zen Triku Festa. Asteburua, Zubi Zarreko eta Urrestilako lokaletako kideek antolatu zuten, eta hainbat kontzertu eskaini zituzten, herriko nahiz kanpoko taldeek. Antolatzaileek hurrengo urteetan ere Triku Festarekin jarraitzeko asmoa dute.

## HEZKUNTZA

## Lau ikastetxe erlijiosok bat egin zuten

Iraurgi, Jesusen Alabak, Milagrosa eta Betharram ikastetxeak bakarrean elkartu ziren, 2002-2003 ikasturterako. Iraurgi Ikastetxea izena hartu zuen i, eta bi urtetatik hasi eta unibertsitatera arteko ikasleak hartzen dituzte.

## EHNA

## Agiria atera ahal izateko bulegoa zabaldu zen

Ekainaren 1eko eguardian ireki zen EHNA (Euskal Herriko Nortasun Agiria) ateratzeko bulegoa. Bai Euskal Herriari herri mugimenduak eginiko eskaera onartu zen Udalean, ezohiko bilkura batean, BUlegoa udallexeko harreraren dago.

## ELKARTASUN EGUNA

## Presoen aldeko jaialdia egin zen bigarrenegoz

Maiatzaren 25ean, Elkartasunez Presoak Herrira eguna ospatu zen, ehunka lagun bilduaz. Iazkoaren ondoren, egiten zen bigarren Elkartasun egun zen. Herri korsa, bazkaria, manifestazioa eta kontzertuak izan ziren besteak-beste.

## URTEMUGAK

## 25 urte bete dituzte herriko hainbat elkartek

Itsasi eta Sahatsa kultur taldeek, Nuarbeko sokatira elkarteak, Iraurgi Saskibaloi elkarteak eta Azpietiko Zine klubak zilarrezko ezteiak ospatau dituzte aurten. Herrian ospakizun asko eta era ezberdinetakoak egin dira.

Gazte Lokalaren  
auzia puri-purian

Liskarrak izan ziren alkatea eta bi gazteren artean

Gazte Lokalaren mamua 2001eko Azarotik herrian bazebilen ere, 2002ko inauterietan iritsi zen jende guztiaaren ahotara. Txikiteo Elegante egunean, ospakizun batzuen ondoren, Jose Mari Bastida Azpeitiko alkatea, eta beste lau zinegotzi Ustarri tabernara joan ziren, beste lagun batzuekin batera. Tabernan zirela, lau lagun sartu

ziren bertara mamuz jantzita, Gazte lokalaren aldarrikapena eginaz. Hemendik aurrera gertatutakoa ez dago batere argi, bertsio ezberdinak zabaldu baitziren.

Mamuek diotenez, beraiek «modu baketsuan» joan baziren ere, «ostikoka eta tximeta-tik tiraka» jaso zituzten, bultzaka tabernatik atera arte. Jose

Mari Bastidak gertakarien hurrengo egunean zionez berri, «bakean uzteko» eskatu zieten gazteei, eta enfrentamenturen bat izan zen.

Ustarritik Egañanera jo zuten alkatea, zinegotziak eta lagun taldeak. Hemen, mamu mozo-roa alde batera utzita, 30 bat gazte azaldu zitzaizkien, gazteen esanetan, «esplikazio eske». Kafetegian animoak berotu egin ziren, eta nork nori eman zizkion argi ez badago ere, kolpearen batzuk egon zirela diote bi aldeek.

## Epaitegietara

Gertakarien ondoren, hiru salaketa jarri ziren: bat alkateak jarri zuen, irainak eta mehatxuak jasane omen zituelako; beste biak herriko bi gaztek jarri zituzten: bat Eneko Ibarguren alkateak ezpaina eten omen ziolako; eta bestea Iker Salegik, botilarekin buruan jo omen zutelako.

Gaur egun, hiru salaketak sumario berdinean batu dituzte, eta epaiketaren zain daude bi aldeak.



JUAN HERRERO / EFE

■ ■ ■ Eneko Ibarguren eta Garikoitz Mendiola, Jose Mari Bastida alkatearen aurkako salaketa jarri zutela iragarri zutenean.

POTXOLO  
LIBURUDENDA

Egunkariak  
Aldizkariak  
Bulegorako gaiak  
Fotokopiak  
Fax zerbitzuak

Gurutze kalea, 6 Tf.: 943 14 71 33  
ZESTOA

## ELORZA

JANARIDENDA

Jai alaiak  
igaro !!

Portale kalea, 3

Tel.: 943 14 76 60

ZESTOA

## EGAINAZPI

Jai alaiak igaro !!

Kirolak

Gurutze, 1 - Tel.: 943 14 78 57 - ZESTOA

## ELORZA

Mertzeria

Usaindegia

Portakale kalea, 7

Tel.: 943 14 71 39

ZESTOA



## bidaide gogaide

EUSKAL HERRIKO MENDI TXANGOEN: • Datuak

• Ibilbidea

• Jakinarriak

www.Egunkaria.com/bidaide



## ZESTOAKO UDALA

Zestuan zenbat izango dira?

Zazpi milla bizi lagun.

An bezain jende euskaltzalerik

Bai ote da beste iñun?

Udazaliak etortzen dira,

Oiek alare euskaldun;

aurrerantz ere al baldin bada

izkuntza maita dezagun.

Manuel Olaizola "Uztapide"

EUSKAL PRESOK  
EUSKAL  
HERRIRA